

**Eresbilek Andra Mari Abesbatzarekin batera antolatzen duen Musikasteren 40. edizioa** hiru Euskal musikagileren omenez egingo da aurtan, bere jaiotzen 100. urteurrena ospatzeko asmoz: Jose de Azpiazu oñatiarrak bere bizitza osoa eskaini zion gitarrari; Maria Victoria Figuerido irundarrak, berriz, biolina eta konposizioa landu ditu Donostian; Francisco Escudero XX. mendeko bigarren zatiko euskal musikagile garrantzitsuenaren izan da. Egitarauak hiru musikagile hauen lanak eskainiko ditu eta beste hainbat alderdi hartuko ditu kontuan: Emma Chacón eta Emiliana Zubeldia bezalako emakumezko musikagileen lanak, adibidez, edota, mitoak bezalako gaiak lantzen dituzten lanak, horien artean David Azurzak sortutako musika-lanaren estreinaldia.

Musikastek, halaber, 1512. urtea hartuko du aintzat bidegurutzeen seinale, Donejakueko bidearen doinurik ospetsuenaren harira.

Bere historiari jarraituz, Musikastek sorkuntza garaikidearen aldeko apustua egin nahi du aurtan ere, Musikenen, Euskal Herriko Musika Goi Ikastegian ikasten ari den gaur egungo musikagileen belaunaldiaren sorkuntza lanak plazaratuz.



M. Victoria Figuerido

Jose de Azpiazu

**Sábado 12 larunbata (19h.)  
HASIERA EKITALDIA - ACTO DE APERTURA - MUGETAN**

Memoriaren transmisioaren harira, Itziar Larrinaga Francisco Escuderoaren alderdi berritzaileaz mintzatuko da, Jon Bagües, 40. edizioa aurkituz eta berrikuntze eta Maddi Oihenart Sū Azia Zuberoako kantua berreskuratzeko eta transmititzeko egitasmoaz.

Mugetan atalak Erretereriako EMTE kolektiboaren hiri musiken memoria erakutsiko ditu.

**Domingo 13 igandea  
GOIZEKO JARDUNA - JORNADA MATINAL**

11:00etan, musika-meza, Ana Belen Garcia organo-jolearekin eta Andra Mari Abesbatzarekin.

12:30ean, Erretereriako Udal Txistulari Taldea

13:15ean, Erretereriako Musika Kultur Elkarteko Banda

**Lunes 14 astelehena (Erretereria Hiria Kulturunea - 20:00)  
MUSIKA GARAIDEA - MÚSICA CONTEMPORÁNEA**

Ensemble Kuraia Musikene Euskal Herriko Musika Goi Ikastegian ikasten ari den gaur egungo musikagile belaunaldiaren sorkuntza lanak estreinatuko ditu.

**Martes 15 asteartea (Erretereria Hiria Kulturunea - 20:00)  
GANBERAKO MUSIKA - MÚSICA DE CÁMARA**

Nora Bolinaga biolin-joleak, Carmen Ayastuy mezzosopranoak eta Susana Garcia de Salazar piano-joleak M<sup>a</sup> Victoria Figuerido, Emma Chacón eta Emiliana Zubeldia bezalako emakumezko musikagileen sorkuntza-lanetan oinarritutako kontzertua eskainiko dute. Tomas Garbizu eta Sabin Salaberriren musika-lanek osatuko dute egitaraua.

**A.M.A.ren FITXA**



## Escudero maixua

Francisco Escudero Garcia de Goizuetak (Donostia, 1912- Zarautz, 2002), Donostiako Udal ikastegian, Madrilan, Parisen eta Munich-en egin zituen musika ikasketak, garaiko irakasle handiekin. 1937an, gerran, Espainiako Arte Ederretako saria jaso zuen, "Trío bucólico" lanarekin. Erbestean bizi ondoren, 1945ean Bilboko Koralarren zuzendari izendatu zuten. 1948an Zarautz bueltatu zen Donostiako Musikaren Udal Ikastegiaren zuzendari izatera. 1952an Xabier Lizardiren poeman oinarrituta "Illeta" oratorioa konposatu zuen. 1957an Espainiako Musika Saria Nazionala irabazi zuen "Arantzazu" eta "Evocación en Itziar" obreakin. 1960an, Donostiako Banda sortu zuen eta urte berean Bilbon aurkeztutako Zigor operarekin berriz ere Musika Sari Nazionala jaso zuen. Bi opera, oratorioak, orkestra eta instrumentu eta abesbatzentzako lanak... ugaria eta aberatsa izan da bere sorkuntza. Hauetatik, Andra Mari Abesbatzak "Oratorio de Joan Bautista" eta "Illeta" lanak ditu errepertorioan 2001ean eta 2002an Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin grabatuak, hurrenez hurren.

BABESLEAK



## Batzar Nagusia

Udaberria hasi berritan, martxoaren 30an, Andra Mari Abesbatzak bere urteko Batzar Nagusia burutu du. Bertan, izako jarduna aztertzeko parada izan genuen eta A.M.A. osatzen dugunok abesbatzei eta elkarteari orain urrunean jartzen dizkiogun egin beharrak hausnartu eta erabaki genituen.

Como en ejercicios anteriores, con los primeros días de la primavera, el 30 de marzo, Andra Mari Abesbatza celebró su Asamblea General. En ella, las personas que hacemos AMA analizamos el pasado ejercicio y reflexionamos y acordamos las metas y objetivos que nos planteamos para el nuevo.



EOS tronpaktropas  
Coral Andramari  
Abesbatza

Argazkia: EOS (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa)

## Miramongo Matinée-ak, apirilaren 21ean, larunbata

EOSeko Tronpen Saila: Jean-Luc Casteret, Peter Gryp, Karl Pipkin, Mario Telenti, Salvador Tudela y Xabier Sarasa

Alicia Griffiths, arpa

Andra Mari Abesbatza (Emakumezkoen korua eta gizonezkoen korua)

Johannes Brahms (1833-1897)

Vier Gesänge op 17 emakumezkoen koruarentzat bi tronpa eta arparen laguntzaz.

Robert Schumann (1810-1856)

Jagdlieder op 137

gizonezko koruarentzat eta lau tronparentzat.

Franz Schubert (1797-1828)

Nachtgesang im Walde D 913

gizonezko koruarentzat eta lau tronparentzat.

Harrigarria da tronpa eta koruentzako musika-lanak sortzeko zein interes eskasa erakutsi duten musikagileek; harrigarria da benetan talka egiten duelako musikagile guztiak era guztietako musika-tresnarentzako sortzeko berezkoa duten grinarekin.

Agian, tronpa ez da, XIX. mendearen bukaera arte izan dituen mugengatik edo, musika-tresna egokia izan musikagile gehientzat. Harrigarriki dira benetan hiru musika-lan hauek, hain dira ederrak, soilak eta zertxobait garrantzi-gabeak eta era berean XIX. mendeko musikagile erromantikoekin eta beren inspirazioekin bat datorren Naturekiko maitasuna hain ongi erakusten dutenak. Talentu handiko Brahmsen sentimendu erromantikoaren sakonetik abiatu, Alemaniako erromantizismoaren erakusgarriena izanda ere, inoiz orkestratzaile handia izan ez den baina konposizio txikienetan bikaina izan den Schuman txepelenarenetik igaro ondoren, Schubertekin amaituko dugu, denboran urrunena, argia, gardena, erromantikoa baino klasikoagoa eta musika-tresnen tratamenduagatik barrokoan erabat murgildua. Hiru musika-lan hauek literaturaren, zinemaren eta pinturaren oroitzenak ekartzen dizkigute gogora. Iraganeko eta orainaldiko hiru musika-lan hauek ezagutu egin behar ditugu, merezi dute eta.

Mario Telenti

## Ekainaren 21a

Ekainaren 21ean, udararen lehen egunean eta Musikaren Nazioarteko egunean Gipuzkoako Foru Aldundian emango zaio Jose Luis Ansorenari Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria.



El próximo día 21 de junio, primer día del verano, y Día Internacional de la Música, se entregará a José Luis Ansorena en la Diputación Foral de Gipuzkoa el Premio Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza.

# 6

Erretereria  
2012ko udaberria

## BERRIPAPERA

## UDABERRIKO AGENDA

**APIRILaren 21a**  
Andra Mari Euskadiko Orkestraren egoitzan (Miramon)  
13. Matinée. Tronpen saila Euskadiko Orkestrak antolatua

**APIRILaren 21 a**  
Orereta Oñatira  
Orereta Txiki Oñatiko Ganbara Txikirekin elkartrukea

**APIRILaren 30a**  
Manlleuko Musika Eskolako Abesbatza Oinarri-Orereta eta Orereta Txiki Fatimako Parrokian  
A.M.Ak antolatua

**MAIATZaren 5 a**  
Oñatiko Ganbara Txiki  
Abesbatza Fatimako Parrokian  
Orereta Txiki eta Onatiko Ganbara Txikirekin elkartrukea

**APIRILaren 21a**  
Andra Mari Euskadiko Orkestraren egoitzan (Miramon)  
13. Matinée. Tronpen saila Euskadiko Orkestrak antolatua

**MAIATZaren 12tik 19ra MUSIKASTE**

**MAIATZaren 13 a**  
Andra Mari Parroki Nagusian Musikastek antolatua

**MAIATZaren 18 a**  
Andra Mari Koru Egunean Musikastek antolatua

**MAIATZaren 19 a**  
Orereta Amaiera kontzertuan Musikastek antolatua

**EKAINAREN 2 a**  
Andra Mari Lasarten Zero Sette Akordeoi Orkestraren 25. urteurrena Zero Sette Akordeoi Orkestrak antolatua

# Orereta manlleun manlleukoak errenterian



Manlleuko Musika Eskolako abesbatza



Manlleuko Udalaren harrera



Orereta -Oinarri Manlleuko Musika Eskolan

Orereta Abesbatzak Manlleu herrian abestu zuen eta Katalunian izan zen martxoan. Kantaldia eta Andra Mari Abesbatzaren koru gazteak Kataluniara burutu duen bisita Manlleu eta Errenteriako bi abesbatzen arteko elkarlan eta elkartruke baten baitan txertatzen da. Gure koru gazteak egin due moduan, apiril hondarrean Manlleuko Musika Eskolako Abesbatza, 40 gaztez osatua, Errenteriara etorriko da gurekin izateko, hemen abestu eta Euskal Herria ezagutzeko.

Andra Mari Abesbatzak Manlleuko abesbatzarekin duen hartu emanen baitan, Orereta Abesbatza martxoaren 15an joan zen Katalunia aldera. Bidai eta emanaldi honetarako hirurogei kantari gaztez osatutako Andra Mari Abesbatzaren koru gazteak, Imanol Elizasu zuzendaritzapean, martxoaren 17an kantatu zuen Manlleuko koruarekin batera, Roca del Museu del Ter auditorioan. Lehendabizi abesbatza bakoitzak bere aldetik eta ondoren bi abesbatzak batera abestu zuten. Imanol Elizasuk Oreretarekin egin zuen moduan, Buia Reixach andreak zuzendu zuen Manlleuko Eskola Musikako Abesbatza eta Nuria Serrat piano joleak bere musikarekin lagundu zituen abesbatzak.

Oso harrera beroa eta abegikorra eskaini zioten gure gazte Manlleuko abesbatzak eta herriak. Kantaldiaren bezperan, Manlleuko udalak harrera egin zion Orereta Abesbatzari eta hori baino lehen gure neska mutilak Bartzelonan Orfeo Catalá abesbatza eta eraikin zoragarria ezagutzeko eta bisitatzeko aukera izan zuten.

Ez da hau izan Orereta Abesbatzak 2012ko neguan eskaini duen emanaldi bakarra. Kataluniara joan aurretik, martxoaren 10an, hogeita bost ahotsez osatutako Orereta Abesbatzak umeei zuzendutako abesti pedagogikoak grabatu zituen Aizkorri Everest Argitaletxearentzako egitasmo baten barruan.

emanaldia ekarri nahi izan zuen gogora eta horrekin batera Andra Mari Abesbatza eredu izatea Nafarroan bertako abesbatza prestaketan. Mari Carmen Garmendia, Andra Mari Abesbatzaren presidentea, abeslari gazteen artean prestaketa areagotzeko garatzen ari den egitasmoa izan zuen hizpide. 2012n aurreikusten diren kontzertu eta emanaldien berri eman ondoren, zuzendaritza-batzordea eraberritu zen, urte bikoitia izanda, presidentea eta diruzaina eraberritu ziren, Mari Carmen Garmendia Lasa eta Idoia Fernandez Vega hautatuak izan ziren, urrenez urren.

## Batzar Nagusia

Martxoaren 30an egin zen Andra Mari Abesbatzaren Ohiko Batzar Nagusia, Mari Carmen Garmendia lehendakari anderearen gidaritzapean. 2011eko urteari zegokion memoriaren laburpena egin ondoren, gure zuzendariak urtearen balorazioa aurkeztu zuten. Jose Manuel Tife, Andra Mari Abesbatzaren zuzendaria, pozik agertu zen abesbatzak egindako lanarekin, urte oparoa izan da, orkestra eta programa ugariekin. Imanol Elizasuk, Andra Mari Abesbatzaren harrobietako koruen zuzendariak, koruek izan duten ibilbidea azpimarratu zuen, eta beste artean Castelnauryko

# A.M.A. canta los Gurre-lieder



Argazkia: BOS (Bilboko Orkestra Sinfonikoa)

Gurre-lieder es una obra que exige un esfuerzo extraordinario tanto a nivel musical, como organizativo y económico. En el Palacio Euskalduna, el 8 y 9 mayo estuvimos presentes 99 músicos de la Bilbao Orkestra Sinfonikoa, 165 coralistas pertenecientes a la Coral Andra Mari de Errentería, Coro Easo de Donostia y Coro Araba de Vitoria-Gasteiz, 6 solistas de primer orden (Anne Swanewillms – soprano -, Torsten Kerl – tenor -, Lilli Paasikivi – mezzosoprano -, John Frederic West – narrador - Arnold Bezuyen – tenor - y Fernando Latorre – barítono -) todos bajo la batuta de Günter Neuhold, director artístico y titular de la BOS especializado en el repertorio de autores centroeuropeos, es decir, más de 270 personas.

Los monumentales “Gurre-lieder” de Arnold Schönberg, son una obra escasamente programada en las salas de conciertos, debido a que su ejecución requiere de una amplísima plantilla instrumental y coral. La excepcionalidad de esta obra se puede comprobar teniendo en cuenta que pese a ser estrenada en Viena un 23 de Febrero de 1913, no se ha interpretado en Euskadi hasta el 8 de Marzo de 2012. La versión ofrecida ha sido la de E. Stein,, que adaptó la obra de su maestro a un tamaño con más posibilidades de ser interpretado, ya que la original exige un mínimo de 145 músicos en el escenario más los coros. Esta versión ha sido interpretada desde 2005 en tres ocasiones a lo largo de todo el mundo. En 2005 por la Saito Kinen Orchestra de Japón, en 2010 por la Berliner Philharmoniker y en Marzo de 2012 por la Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

Gurre-lieder (canciones de Gurre) es un ciclo de canciones compuestas por Arnold Schönberg (1874-1951) al comienzo de su carrera, vocalmente es una obra muy exigente sobre todo para los tenores. La primera parte fue terminada en 1901 y está compuesta en el primer estilo del compositor con gran influencia de Wagner y Mahler, la segunda parte terminada en 1911 difiere totalmente en estilo, mostrando la evolución de Schönberg hacia la dodecafonía (técnica de composición en la cual las 12 notas de la escala cromática son tratadas como equivalentes)

Gurre-lieder es una ópera entretenida, diversa, épica y pintada con un dramatismo siempre amable. Evocan el amor del rey Waldemar por Tove, sus furtivas cabalgatas nocturnas al encuentro de la condesa, su desesperación por la muerte de la amada y el símbolo glorioso de la resurrección.

La Orquesta Sinfónica de Bilbao ha incluido joya musical dentro de su temporada con motivo de su 90 aniversario. Zorionak a la BOS! Para Andra Mari Abesbatza, además de un reto ha sido un orgullo poder participar en la obra y compartir con la Bilbao Orkestra Sinfonikoa su aniversario. Se trata de la 49 ocasión en que AMA cantaba con la Sinfónica de Bilbao, desde un ya lejano 6 de septiembre de 1981 en el que el entonces Coliseo Albia interpretamos “Stabat Mater” de Juan Crisóstomo Arriaga.